

# B

BARREN

TOKIKOM

# Euskarara bizipozez

Jose Mari Agirretxe  
'Porrotx'



Nola eragin haur eta nerabeek euskaraz egin dezaten

JARDUNALDIA

Streaming bidez jarraitzeko:  
[www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)

2014ko azaroak 28, ostirala  
ELGOIBAR • IMHko Areto Nagusia





## Eskertzak eta urteurrenak

I. URTEURRENA

### ASIER MAKAZAGA BENGOETXEA



*Berriro itzuliko balitz  
iragana gure artera,  
mugiko nuke mundua  
egon gaitezen batera,  
baina patuak tamalez  
ez daki egiten atzera,  
eta zu bidali zaitu  
gugandik abiatzera.*

*Bihotz oneko pertsona,  
oso maitatua bera,  
kirolzale, irakasle  
Amorebietako "fiera"  
familia eta lagunak  
ez goaz zu ahaztera:  
gure aita eta senarra  
beti izango zera.*



*Zure senideok eta lagunok ez zaitugu ahazten.*

XI. URTEURRENA

### LOREA ETXABE AZKUE



*Edur zurittan hazittako  
lore gorrixa ziñan.  
Urtu eraitten zendun  
inguruko hotza,  
eta bedarra hazi erain.*

*Ez dogu gehixago  
zure berua igarriko,  
baiña hementxe gerauko da  
zure arnasia aztarnia,  
botatako sustraixen gaiñian.*

**Zure familia eta lagunak**



2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela. XI. urteurreneko meza, azaroaren 26an, eguaztenean, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



Inma  
Mugertza

Gogoratzen duzu, Ander, atal honetan idazteko aukera eman ziguten eguna? Gure kezka zera zen: ingurumenari buruz idazteko gai nahikoak edukiko ote genituen.

Orain, hasi ginenetik ia urtebete pasata,

galdera hori erantzunda dago, ezta? Astero dago arreta deitzen digun berriren bat. Oraingoan, Zestoako Osinbeltz harrobian jarri nahi duten hondakin geldoen zabortegia hartu nahi izan dut hizpide. Zabortegiarekin harrobia berreskuratu nahi omen dute...mmm...zelako paradoxal! Norbaiti bonbilla piztu zitzaion, baina kezkatuta nago ez ote zaion epe motzera erreko.

### “Zabortegiarekin Osinbeltz harrobia berreskuratu nahi ei dute... A zer paradoxa!”

Nire ikuspuntutik eta politika alde batetara utzita, gauza pare bat aipatu nahi ditut. Hasteko, ez dago hondakin geldorik, hau da, %100ean garbiak diren eta kutsadurarik sortzen ez duten hondakinik. Jarraitzeko, Osinbeltzeko harrobia kareharriak ustiatzeko erabili zen, leize eta zuloz jositako kareharriak, Izarraitz, Haitzgorri edo Durangaldekoak bezalakoak. Harrobian bertan 65 metroko sakonera duen koba bat dago. Gainera, harrobitik gertu bi iturburu handi daude, Hamabiturri eta Osinbeltz. Iturburu horietatik irtetzen den ura harrobitik iragaziko da euria egiten duenean. Esandakoarekin, lanak erakutsi didanarekin eta kareharritzko inguruetako lurrazpiko uraren sentiberatasun handia tarteko, kokapen horrek zailtzak sortzen dizkit.

Prentsan ageri diren berrien arabera, erabakia hartuta dagoela dirudi, oraindik Ingurumen Inpaktuaren Ebaluaketa eta Ingurumen Legeak eskatzen dituen beste txostenak egin gabe daudela. Kokapen hori aukeratu bada, zentzuz egin dela pentsatu nahi dut. Gainera, galdeketa ere egingo omen dute herrian eta hori ondo baino hobeto dago, baina kontuz! Arretaz jarraituko dut gaia.



Ander  
Izagirre

Gaiak sobera izan ditugu bai, baina gaurkoan aipatzen duzun hau orain arteko korapilatsuena eta delikatuena iruditzen zait. Eta orain arte landutako gaietan, iritzi berberak erakutsi ditugun arren, oraingoan ikuspuntu desberdin batzuk ditugulakoan nago.

Harrobia kareharritzkoa izateak ekarri ditzakeen arriskuak aipatu dituzu eta ezin ukatu zalantza berberak bururatzen zaizkidanik.

Eta hondakin geldoak guztiz garbiak ez direla ere ez da gezurra, ez. Hala ere, ez dut sinesten harrobi azpiko akuiferoak horren erraz kutsatzeko gai izango direnik. Arrisku guztiak aztertuak izan direla esango nuke eta gerta litezkeen ondorio kaltegarriak saihesteko beharrezko neurriak hartuko direla. Bestalde, Kataluniako hondakin alorreko arduradun nagusiak honela dio: “Tratamendu Mekaniko Biologiko plantek hondakinak ondo bizigabetzen dituzte, eta hemen hori egiten bada, materia horrek ez du inongo arazorik sortuko”.

### “Zailtasunak kontuan hartuta, gauzak ahal diren ondoen egingo diren esperantza daukat”

Agian baikorregia naizela irudituko zaizu, eta ulertzen dizut, baina orain arte ingurumenaren alde jarrera egokiena erakutsi duen gobernu dela ikusita (errauskailua gelditzeak, atez atekoarekin erakutsitako jarrerak...), beraiengan sinesteko arrazoiak eman dizkidate. Ingurumenaren defentsan, hainbat eta hainbat oztopo izan dituzte, eta ausardia handiz jokatu dutela iruditzen zait.

Amaitzeko, galdeketa egiteko borondatea erakutsi du gobernu honek. Horren harira, barregarria iruditzen zait oposizioak nola salatu duen kontu hau, AHTa bezalako hainbat inposaketa guztiz ahaztuta...

Laburbilduz, zailtasun guztiak kontuan hartuta, gauzak ahal diren ondoen egingo diren esperantza daukat, Inma.

Jarri ezazu zure publizitatea

[barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

B

BARREN  
astekarian  
943 744 112



# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikunik.

**KOORDINATZAILEAK** Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## ARGITARATZAILEAK:



ELGOIBARKO IZARRA

## LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar  
biZi-biZiXal



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Zergatik?

Lotsagarria iruditzen zait Eusko Jaurlaritzak hartu berri duen erabakia; uko egin dio Zubietako Tratamendu Mekaniko Biologikoen plantari ingurumen baimena luzatzeari. Logikoa denez, honek atzerapenak eragingo ditu hondakinen alorreko Gipuzkoako plangintza osoan.

Ez dut ulertzen zergatik lehen Zubietan Gipuzkoako tratamendu biologikorako planta bat (TMB) eta erraustegi bat egiteko baimena bazegoen, eta orain, baimen horrek ez duen balio TMBa egiteko. Gainera, argi geratu da TMB horrek lehengo azpiegiturek baino ingurumen eragin txikiagoa duela, eta kasu horietarako, legeak ez duela aurreikusten beste baimen bat eskatu beharrik.

Iñaki Errazkinen, Gipuzkoako Ingurumenerako eta Lurralde Antolaketako diputatuak, Eusko Jaurlaritzari egindako galderaren erantzunaren zain gaude gipuzkoarrok: TMBak erraustegiak baino eragin txikiagoa badu, eta lehen ere TMB bat egitea aurreikusita bazegoen, zergatik ez du balio baimen berak?

Oztopoak oztopo, zero zabor bidean lanean gabiltzan herritarrok aurrera jarraituko dugu birziklapenean oinarritutako gure ereduarekin: zabortegirik eta erraustegirik gabeko ereduarekin. Hori geldiezina da.

A.Z. C

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



# EUSKAL HERRIA ETA KATALUNIA, ELKARRI BEGIRA

Eskoziarrek hasi zuten bidea, eta kataluniarrek jarraitu zieten. Gure Esku Dago mugimenduak deituta, Donostian erabakitzeko eskubidearen aldeko mosaiko handia osatu biharamunean, azaroaren 9an, borondatea izanez gero helbururik zailenak lor daitezkeela erakutsi zuten kataluniarrek. Trabak traba, herri galdeketa antolatu zuten, eta bi milioi lagun baino gehiagok eman zuten botoa. Erabakitzeko eskubidea dutela aldarrikatzen ari dira bi herriak, eta elkari begira daude aspaldian. Gai horren bueltan, Juan Luis Ines Elgoibarren bizi den kataluniarra eta Guruzne Urkidi gaur Tarragonan bizi den elgoibartarra ekarri ditugu orrialde hauetara.

Ainara Argoitia

## GURUZNE URKIDI (Elgoibar, 1985)



Guruzne Urkidi Reusen bizi da gaur, Tarragonan. Fisioterapia ikastera joan zen hara duela 11 urte, eta ikasketak bukatu ostean, bertan gelditu zen. Orain, fisioterapeuta lanean dihardu, adimen urritasuna daukatenei eta adinekoei laguntzen, eta erabakitzeko eskubidearen inguruko eztabaida ilusioz bizi du inguruan. Azaroaren 9ko galdeketa botoa ere eman zuen.

### “Euskal Herritik iritsitako animoek indarra eman ziguten”

Kataluniara begira gaude Euskal Herrian aspaldian. Zu elgoibartarra zara, baina hango herri galdeketa saioan parte hartzeko aukera izan duzu? Nola jarraitu duzu prozesua? Nola bizi izan zenuen eguna bera?

Galdeketa parte hartu ahal izan nuen, bai. Esan daiteke prozesua orain dela hiru urteko irailaren 11n Bartzelonan egin zen manifestazioarekin hasi zela indarra hartzen. Hortik au-

rrera ekintza ugari egin dira, eta guztietan parte hartu dut. Azaroaren 9a gerturatzen ari zen heinean, tentsioa handia zen hemen, Espainiatik behin eta berriz kontsulta inpugnatu eta galdeketarako trabak ipini besterik ez dutelako egin. Eguna bera emozio handiz bizi izan nuen. Ziurgabetasun pixkat ere baneukan, Espainiatik kontsulta egin ez zedin edo zer gauza egiteko gai zirela uste nuelako. Baina, goizeko 9:00etan puntuan bozkatu behar genuen ikastetxera hurbildu nintzenean, ikusi nuen hura gelditzea ezinezkoa zela. Jende pila bat bildu ginen lehenengo orduan, denak pozik, emozioz eta oso giro politean. Bozkatu nuen momentuan oroitzapen asko etorri zitzaizkidan burura. Momentu politik bizi izan genituen joan zen domekan hemen: bizi osoa borrokan eman duen 94 urteko aitonen malkoak, lehenengoz botoa eman zuten 16 urteko gazteen emozioa, argazkiak,

besarkadak, boluntarioei txaloak...

Beste abiada batean goaz Euskal Herrian, baina hemen ere Gure Esku Dago dinamika indartsu dabil. Kataluniatik ze begiz ikusten duzue gurean gertatzen ari dena? Non gaude eta non ikusten gaituzu hortik begiratuta? Gure Esku Dago dinamika mugimendu indartsua dela uste dut. Kataluniako prozesua oso gertutik jarraitzen egon dira, eta antzekotasun asko ikusten dut, bietan gizartea izan delako mugimendua bultzatu duena. Katalunian, baina, denbora gutxian gertatu da dena. Orain dela hiru urte ez zegoen erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen zuen horrenbeste jende; Euskal Herrian, aldiz, denbora luzean ari da jendea horren alde. Nire iritziz, baina, bereizgarri bat bada: hemen indar politikoa handia eduki du honek, alderdi politikoa batu egin direlako honen alde borrokatzeko eta horrek egin du gizarteak horrela eran-

tzutea.

**Gure Esku Dagok hainbat ekimen ikusgarri antolatu ditu, baina nagusienak ekaineko giza katea eta joan zen asteko mosaikoa izan dira. Parte hartu al zenuen horietan?**

Oso hurbiletik jarraitu ditut bi ekintza horiek, baina ezin izan dut zuzenean parte hartu. Ekainaren 8ko giza katera joatekoak ginen hemengo koadrila handi bat, baina egun berean Kataluniako erreferendumaren aldeko giza-gazteluak altxatu genituen Europako estatatu desberdinetan, eta horietako baterra joan ginen gu, Suitzara. Euskaldun batzuk etorri zitzaizkigun hura ikustera, ikurrina eta guzti, eta momentu hori oso polita izan zen, twitter, facebook etab. bidez jarraitu genuelako horako giza katea. Mosaikoak ere hunkitu ninduen, eta horko lagunak ere ilusio handiz bizi izan zuten momentu hura. Azaroaren 8an ez genekien ziur hurrengo egunean bozkatu ahal izango genuen edo ez, eta Euskal Herri- tik iritsitako animoek indarra eman ziguten.

**Erabakitze eskubidea egikaritzea eskatzen dihardugun bi herri gara Katalunia eta Euskal Herria. Ze alde ikusten duzu bataren eta bestearen artean? Zer du ikasteko Euskal Herriak Kataluniatik, zure ustez?**

Orain arte Katalunia Euskal Herrira begira egon da beti, eta orain, Euskal Herriak begiratzen du Kataluniara. Katalunian, hasiera batean, kontzertu ekonomikoagatik borrokatu zuen batez ere, baina Espainiatik Estatu- tua onartu ez zutenetik hona, milaka eraso jasan izan behar ditugu: ezagunena, Wert

ministroaren legea. Euskal Herriak badauka kontzertu ekonomikoa, eta beraz, beste puntu batetik hasi du borroka. Ez dut uste Euskal Herriak Kataluniatik ezer ikasi behar duenik; prozesua hurbiletik segitu eta bertara moldatu behar du. Kataluniatik erakutsi dugu guztiok bat eginda helburua lortu daitekeela; denok batera egin behar dugu, baina, horretarako. Euskal Herrian bide berdintsua ari dira jarraitzen eta modu berean bukatzea espero dut.

**Azaroaren 9koa ez zen antolatzaileek nahi izango luketen bezalako galdeketa izan, baina zuk zeuk zer balorazio egiten duzu?**

Nire iritziz, 2.300.000 pertsona bozkatzera joan izana izugarritzko erantzuna izan da, Espainiako Gobernuaren trabak, zailtasunak eta mehatxuak kontuan hartuta. Oztopo guzti horiek jasan izanak eta in- pugnazio etengabeek egin dute jendea gogo gehiagoz joatea bozkatzera. Orain, erreferenduma egitearen alde borrokatze- ko ordua da.

**Espainiako Estatuak zigor bidetik erantzuteko asmoa agertu zuen, A- 9ko bozketa antolatzeagatik Artur Masen eta Generalitateko hiru kontseilariren kontra kereila prestatzen ari zirela ere esan zuten Estatu- tuko Fiskaltza Nagusiak eta Kataluniako Fiskaltzak. Zer iritzi duzu horren gainean?**

Berriz ere mehatxu eta kereila bidez erant- zun dute, prozesua ulertu eta onartu be- harrean. Espainiako Gobernuaren egiteko modua da; ez nau harritu.

**Horren kontra, autoinkulpazio kanpaina ere hasi dute Katalunian. Zer nolako oihartzuna ari da izaten zure bueltan? Mugimendu anti- militaristak autoinkulpazioa erabili zuen bere garaian soldaduskaren kontra egiteko eta or- duan, emaitza ona izan zen. Uste duzu ho- nek balioko duela zerbaiteko?**

Momentuz jendea Kataluniako Fiskaltzak zer esaten duen zain dago, iragarri duelako jada ez duela Mas eta bere gobernuaren kontra- ko kereila aurkeztuko. Autoinkulpazio kan- painak aurrera eginez gero, Espainiako Fis- kaltzak presioa izango luke, Kataluniako Par- lamentuan errepresentazioa duten lau alder- diak egongo liratekeelako inplikatura.

**Erreferendumean hamarretik zortzik inde- pendentziaren alde egin zuten. Sentimendu hori badago kalean? Zer nabari duzu zure bueltan? Galdetu dizute Euskal Herriaz?**

Katalunian Euskal Herriarekiko maitasun handia dago, eta bertako biztanleek oso on- gi onartzen gaituzte euskaldunok. Orain dela hiru bat urtetik hona sentimendu hori nabaria da kalean, baina nire inguruan betidanik egon den zerbait da. Egia da, hori bai, orain jende gehiago dagoela independentziaren al- de, jendeak gehiago hitz egiten duela honi buruz, eta independentziaren aldeko kamise- tak, zapatilak, estelak etab. gehiago ikusten direla kalean. Jende askok galdetu dit Euskal Herriaz, ea han zer pentsatzen duzuen Kata- luniaz, ea independentziaren aldekoak zare- ten, egunen baten kontsulta egingo den ala ez, eta eginez gero, zer aterako litzatekeen...

## JUAN LUIS INES (Bartzelona, 1973)



Juan Luis Ines Bartzelonakoa da sortzez, baina hemezortzi urte daramatza gure artean bizitzen. Maitasunak ekarri zuen Elgoibarrera eta “oso gustu- ra” bizi dela aitortu du. Gure Esku Dagok deitutako ekintzetan parte hartu du, eta distantziatik, baina aldi berean, oso gertutik bizi du Katalunian ger- tatzen ari dena.

**“Malenkonia pixkatekin, baina ilusioz bizi dut Katalunian gertatzen ari dena”**

## **Nola bizi duzu Kataluniako prozesua Euskal Herriatik begiratuta?**

Nahi baino urrutiagotik bizi dut, eta malenkonia pixkatekin, dena esan behar bada, pena ematen baitit prozesu horretan parte hartze-ko aukerarik ez izateak. Baina, aldi berean, ilusioz ere bizi dut, Katalunian orain indarra hartu duen mugimendu honen bueltan bazen zirenak lehen lau zirelako eta orain asko. Orain, eta izan daiteke ekonomiaren egoeragatik edo beste arrazoi askorengatik, independentziaren alde agertu direnak askoz gehiago dira, eta ni independentziaren aldekoa izan naizenez beti, ba pozik nago. Hori bai, pauso hori eman dute, baina beranduegi, nire gusturako. Horrek ematen dit tristura, bere garaian gaur beste izan bagina, aurrerago geundekelako orain. Artur Mas bera ere, neurri batean, behartuta batu da borroka honetara. Bere hitza eman zuen hauteskunde-kanpainan eta betetzera behartuta sentitu da, ondo zekielako atzera egingo balu boto asko galduko zituela.

## **Euskal Herrian bizi zara orain eta konturatu-ko zinen Kataluniara begira gaudela aspaldian hemen. Nik esango nuke, gainera, inbidia puntu batez ere begiratzen dugula hara.**

Bai, izan daiteke hori ere. Lortu dute bateko eta besteko borondateak elkar lotzea, eta erabakitze eskubidearen aldeko mugimendura jende asko inguratzea. Horregatik bakarrik badira eredu, bai.

## **Esan duzu beharbada ekonomiak lagundu duela erabakitze eskubidearen aldeko aldarriak horrenbesteko indarra hartzea han. Ez duzu uste Espainiako Gobernuak berak meritu handia egin duela horretarako, bere mehatxu eta gainerakoekin?**

Bai, jakina, baina hori ez da gauza berria. Espainiako Gobernuak orain Katalunian egiten ari dena ez da inondik inora kontu berria, gertatzen dena da, beharbada, jendea nekatu egin dela eta horrek altxarazi dituela. Gerrikoa larregi estutzen denean jendea zutitzen da, hori garbi dago, eta nik uste dut hori gertatu dela orain Katalunian. 'Nahikoa da' esan dutela; 'gure etorkizuna erabakitzea geuri dagokigu' esan dutela.

## **Nola bizi izan zenuen azaroaren 9a?**

Oso egun polita izan zen, hunkigarria. Senideak whatsapppe argazkiak bidali eta bidali izan nituen egun osoan. Mila aldiz emango zuten botoa, baina azaroaren 9ko boto-ema-tea berezia izan zen guztientzat. Jendeak ne-

kez ateratzen ditu argazkiak hauteskontzi ondoan boto-papera eskuan duela, eta egun horretan askok egin zuten, egun historikoa izan zelako. Nire arreba boluntario aritu zen lanean egun horretan, eta bere mahaira Artur Mas botoa ematera hurbildu zenean, hari ere egin zion argazkia eta bidali zidan, jakina. Amona ere hunkitu zitzaigun.

## **Zer esaten dizute kataluniako senide eta lagunek?**

Bazela erreakzionatzeko ordua. Katalunian *tenir coll avall* esaten dugu, esateko asumituta dugula erabakitze eskubidea badagokigula. Norbere etorkizunaz erabakitze eskubidea eskubiderik behinena da, eta kanporako ondo ikusten duguna honako ez onartzea lotsagarria da, guztiz deitoragarria. Gauzarik normalena izan beharko luke barren horrek!

## **Espainiako Fiskaltzak egun horretan boluntario aritu zirenen kontra ekiteko bidea ere aztertuko zuela ohartarazi zuen. Zer dio zure arabak?**

Ez nekien ezer, baina seguru nago mehatxu horiek ibilbide motza dutela. Mehatxu egin dute, baina ez dute beteko. Nola beteko dute ba? Euren buruaren kontra egitea litzateke. Inork ez luke ulertuko eta are gutxiago onartuko erabakitze eskubidea aldarrikatzeagatik norbait auzipetzea edo kartzelaztea. Mehatxu egin dutenek eurek ere ondo dakite hori.

## **Donostian ikusi zintugun aurrekoan, Gure Esku Dagok deituta egin zen mosaiko handian. Gure Esku Dago mugimenduaren jarduna gertutik jarraitzen duzu beraz.**

Bai. Izan nintzen, bai, Zurriolan. Semearekin joan nintzen eta oso polita izan zen. Ekitaldia bukatu eta whatsapppe airetik ateratako lehenengo argazki haiek iritsi zitzaizkigun arte ez ginen jabetu egin genuenez, baina ikaragarria izan zen. Izugarri irudi politik sortu genituen. Saiatu nintzen neu ere nengoen lekutik argazki batzuk ateratzen gurasoei-eta bidaltzeko, baina behetik ez nuen asmatzen ganorazko argazkirik egiten eta amorratuta egon nintzen. Hori bai, goitik ateratakoak iritsi zitzaizkidanean... izugarria izan zen, oilo larrua jartzera inokoa. Pena eman zidan, era berean, mosaikoa osatzeko jendea falta genuela entzun nuenean. Kostatu zitzaion begira zegoen jendea inguratzea, eta aitortzen dizut horrek pena pixkat eman zidala, baina azken emaitza itzela izan zen. Bergaran egin

zen giza kate historikoan ere parte hartu genuen. Ikaragarria izan zen hura ere.

## **Nola baloratzen duzu Gure Esku Dago egiten ari dena?**

Ilusioa sortzen duten ekintzak dira egiten ari direnak eta uste dut Gure Esku Dago mugimendukoak asmatzen ari direla. Katalunian egin den bidea eta hemen egiten ari garena alderatzen dudanean, alde ikusten dut: han, Katalunian, inoren zain egon gabe egin dutelako aurrera, oztopoak gaindituta. Hona etorrita, nik beti ikusi izan dut EAJK, adibidez, oso epel jokatu izan duela beti. Busti gabe egin nahi izan du beti igerian, eta hori ezinezkoa da. Katalunian gertatu dena da mugimendua behetik hasi dela. Herria mugitu eta batu dela eta behin oinarri hori –berez oinarri sendoena dena– baduzunean bazaude gorago jotzeko ere. Alegia, oinarri hori lortzen bada, politikariak nekez ausartuko dira ezetza ematera, behartuta daudelako horri erantzutera. Hemen, baina, kontrakoa gertatzen da sari. Politikariek zer erabaki zain egoten gara; haien baimenaren zain gaude pausoak emateko, eta hori oker handia da nire ustez. Herri baten etorkizuna gauza handia da soilik politikarien esku lagatzeko. Behetik hasi behar da mugimendua, politikariak oso eroso daudelako dauden lekuan eta gauzak aldatzeko, ekin egin behar delako. Hori da Gure Esku Dago esaten ari dena, eta nik bat egiten dut guztiz horrekin.

## **Non ikusten gaituzu epe ertain batera?**

Lehen, egoera apur bat zailtzen zenean, Katalunia makurtu egiten zen beti eta guk hartzen genuen haginetakoa, baina orain, kontuz! Katalunian pilak jarri dituzte, eta sendo ikusten ditut. Haiak lortzen badute, hurrenagu gara, eta orain ez dut lehen bezain zaila ikusten noizbait herri honek erabakitze duen eskubidea egikaritu ahal izatea. Gero ikusi beharko litzateke herriak zer erabakitzen duen, gertatu daitekeelako Eskozian gertatu zen bezala ezetzak irabaztea eta Espainiari lotuta jarraitu nahi izatea erabakitzea herritarrek, baina gutxienez geuk erabakiko genuke. Hori bai, ezetzak irabaziko balu, nik pena hartuko nuke, Eskozian ezetzak irabazi zutenean hartu nuen bezala. Ezustekoa izan zen hura niretzat, egia esan. Nolanahi ere, guk aldarrikatzen eta eskatzen duguna jokatu ahal izatea da. Gero ikusiko dugu irabazi edo galdu egiten dugun, baina garbi dago eskatzen ari garen hori dagokigun zerbait dela.

## DanobatGroup taldea saritu dute Txinako Global Asia sarietan

Txinako “enpresa espainiar onena” izendatu dute Elgoibarko kooperatiba

**E**spainiaren eta Txinaren arteko hartu-emanetan eragin nabarmena izan duten enpresa eta pertsonak saritzen dituzte Global Asia sarietan. Hirugarren urtez antolatu dituzte aurten, eta DanobatGroup izan da sarituetako bat. Txinako “enpresa espainiar onena” izendatu dute kooperatiba, duela urte askotatik hona egiten ari den “lan handiagatik”, eta Txinako merkatua bezalako merkatu konplexuan lortutako “arrakastagatik”. Iñigo Ucin DanobatGroupeko zuzendari nagusiak jaso zuen Global Asia saria, joan den azaroaren 13an egin zuten sari banaketa ekitaldian. Txinatarrek Madrilen duten Kultur zentroan egin zuten ekitaldia, Zhu Bangzharen [Txinako enbajadorea Espainian] parte hartzearekin, besteak beste. Ivan Mañez Global Asiako sortzaile eta zuzendariaren esanetan, DanobatGroup erreferente da Txinan arrakasta izan nahi duten enpresentzat, eta Txinan negozioak egiteko “txinatartzeak” duen garrantziaz jabetu den enpresaren adibide garbia da. Dano-



batGroup-entzat Txinan daraman ibilbide luzearen errekonozimendua da saria, eta baita bultzada bat ere, “datozen urteetan bide horretatik jarraitzeko”. Txina “funtzesko” merkatutzat dute. Horregatik dute duela hogeitun urte baino gehiagotik hona 30 laguneko lantaldea Pekinen lanean.

### Elgoibarko herrigunea autoentzat itxita egongo da Mugikortasun Astean

*Nire autorik gabeko hiria* lemapean, Mugikortasun Iraunkorraren Astea izango da azaroaren 24tik 30era. Aste horretan herritarren ohituretan eragin nahi dute, eta bereziki, autoa aparkatzeko ohiturak aldatzeko ahalegina egingo dute. Horretarako, herriko erdigunea itxita egongo da autoentzako, asteleheneetik domekara, eguneko 24 orduetan. Hortaz, San Frantzisko, San Bartolome, Errosario eta Santa Ana kaleetan ezingo da aparkatu datorren astean. Zamaianak egiteko guneak soilik erabili ahal izango dira.

Horrez gain, Oin Alai egitasmoko boluntarioi podometroak emango dizkiete, eskolara bidean zenbat pauso ematen dituzten neurtzeko, eta horren arabera kalkulatu dute zenbat CO2 aurrezten den. LHko ikasleek isun sinbolikoak jarriko dizkiete gaizki aparkatuta dauden autoei, eta Udaltzainburuak bide heziketari buruzko hitzaldiak eskainiko dizkie HH5eko umei, kalean nola ibili behar duten irakasteko. Era berean, Emugiko auto eta bizikleta elektrikoak probatzeko aukera ere egongo da. Azaroaren 29an, bestalde, bigarren eskuko produktuen azoka egingo dute Lekuederren. Herriko ikastetxeek, Parrokiako misio taldeak eta Miskik hainbat produktu jarriko dituzte salgai, 10:00etatik 14:00etara bitartean. Egun berean, material birziklatuekin Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra egongo da umeentzat, 12:00etatik aurrera.

### Errigora ekimenak 146 saski saldu ditu Elgoibarren



Elgoibarko herriak “erantzun ezinhobea” eman dio Errigoraren Udazkeneko kanpainari. Izan ere, aurten, guztira, 146 otar saldu dituzte Elgoibarren (joan den urtean baino 120 gehiago). Antolatzaileak oso pozik azaldu dira ekimenak izan duen harrerarekin, lehen egunetan aurreikuspen guztiak gainditu baitziren. Elgoibarko Errigora ekimenak eskerrak eman dizkie proiektu honetan lagundu edo interesa agertu duten guztiei. Nafarroa hegoaldeak propio dituen produktuak Euskal Herriko plazan kokatu nahi ditu egitasmo honek, urrunekoen ordez hemengo produktuak kontsumitzeko. Horrez gain, Nafarroa hegoaldean euskara ofiziala ez den zonaldeko euskalgintzari bultzada ekonomikoa eman nahi dio. *Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka* lema izan du Udazkeneko kanpaina honek eta Nafarroako produktuen saskiak 50 euroan saldu dituzte.



## Izena **Mausitxa**



Mausitxako gaztak irabazi du Ordizia Txapeldun gazta lehiaketa. 2005etik 2014ra Ordiziako gazta txapelketa entzutetsua irabazi duten gaztagileek hartu zuten parte, eta Elgoibarko gaztak jaso zuen puntuaziorik onena. Elgoibarko gaztandegiak hiru gazta aurkeztu zituen lehiaketara, hiru alditan irabazi baitu Ordiziako txapelketa (2005, 2007 eta 2009), eta horietako batek irabazi zuen txapeldunen txapelketa.

Mausitxako gazta bigarren postuan sailkatu zen aurtengo Ordiziako Idiazabalgo artzain gaztaren txapelketan, eta gazta hura egin zuten egun berean egindako beste ale bat aurkeztu zuten joan den zapatuan Ordizian egin zuten Ordizia Txapeldun gazta lehiaketara. Mausitxak aurkeztutako gazta oso gutxigatik ez zen heldu Urrezko Gazta garaikurra eskuratzeko behar izaten den 8,5eko puntuaziora. Epaimahiki-deek 8,45 puntu eman zizkieten Mausitxako gaztari.

## Neurketa **Euskararen erabilera kalean**

Elgoibarko Udalak Soziolinguistika Klusterrarekin egin du gure herriko euskararen erabilerearen kale-neurketa, eta erabilera orokorra %39,7koa izan da. Guztira, 2.254 elkarriketa jaso dira eta 6.246 herritarren jarduna aztertu dute. Emaizten berri emateko aurkezpena izango da datorren azaroaren 26an, asteazkena, arratsaldeko 18:30ean Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Soziolinguistika Klusterreko kideak bertan izango dira azterketaren ondorioak azaltzeko. Aurkezpena irekia izango da, beraz, nahi duten herritar guztiek parte hartu ahal izango dute.

## Ginkana **Zero Zabor bidean, jolastu**

Azaroaren 22tik 30era Europako Hondakinen Prebentziorako Astea izango da, eta egitasmoarekin bat eginez, hondakinen prebentziorako kanpaina egingo du Debanatura elkarteak Debabarrenean. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker, *Herriak Garbi, Zero Zabor Bidea Debabarrenean* programa jarri dute martxan, eta horren barruan hainbat ekintza burutuko dituzte, zaborrak gutxitzeak eta birziklatzeak duen garrantziaz ohartarazteko. Horretarako, ginkaka jokoak prestatu dute, umeentzako, *Zero Zabor bidean, jolastu* izenburupean. Domekan Mendaron egingo dute, azaroaren 29an Soraluzen, eta hilaren 30ean, Elgoibarren.

## **Sare Eguna bihar, Mendaron**

Sare Eguna antolatu dute biharko, Mendaron. Bazkal aurretik herri kirolen saioa egingo dute Herriko Enparantzian, eta 14:30ean babajana izango da frontoian. Interesatuak Aitzbeltz tabernan eman beharko dute bazkaritarako izena. Bazkalostean kafe-tertulia egingo dute. 18:30ean Motxaila Band taldearekin kalejira egongo da, eta 23:00etatik aurrera kontzertuak izango dira Gaztetxean: Very txarrak, Pa&Go eta DJ Pius.

## **'Elektronikoen Espezializazioa' ikastaroa, IMHn**

Lanbidek 100%ean diruz lagunduta, Elektronikoen Espezializazioa ikastaroa jarriko du martxan IMHk, abenduaren 18an. Ingeniariak elektronika arloan espezializatu eta makina-erreminta enpresa baten integratzeko helburua du ikastaroak. Besteak beste, euskara, gaztelania eta ingeles maila altua eskatuko da. Informazio gehiago 943 748 270 (Nora Ramon) telefonoan.

## **Gizarteratze mahaiaik boluntarioak behar ditu**

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak janari bilketa masiboa antolatu du lurraldeko 30 herritan azaroaren 28 eta 29rako, eta Elgoibarko Gizarteratze Mahaiaik bat egin du ekimenarekin. Eurak arduratuko dira janari bilketaz, baina bilketan lagunduko duen jendea behar dute. Boluntarioek, txalekoak jantzita, merkataritza-gunean sartzen direnei poltsa bana eskainiko diete, irteeran janariz beteta uztera gonbidatuz. Hala, oinarizko beharra dutenei laguntzeko aukera edukiko dute herritarrek. Iaz egin zuten janari batzea estreinakoz, eta 350.000 kilo batu zituzten Gipuzkoako hipermerkatu eta supermerkatu handietan.

Azaroaren 28an eta 29an, 9:00etatik 21:00etara arituko dira janaria biltzen. Boluntario izateko interesatuak lehenbailehen eman behar dute izena, Ongizate Sailean (Kalegoen 6 behea), edo 943 741 008 telefonoan.

# ezkontza

## gehigarria



## Emaztegaiaren edertasun agenda

**H**iru hilabete falta direla ezkontza egunerako? Jarraian aipatuko dizkizugu zure ezkontza egunean ezin politago egon zaitezzen egin beharrekoak:

Oraindik denbora duzu soberan dituzun kiloto horiek kentzeko, eta horretarako, GORPUTZ TRATAMENDU ugari dauzkagu, edertasun arloan zuri laguntzeko. Bi sesio egingo genituzke astean, LPG, RADIOFREKUENTZIA, PRESOTERAPIA, MESOTERAPIA... erabiliz. Aurpegiko azaleko arazoei aurre egiteko unea ere orain da! Aknea, orbainak eta bestelakoak konpontzeko aurpegiko tratamendu ugari aurkituko dituzu.

Lehenik eta behin, gorputza EXFOLIATU eta HIDRATATU behar da, AURPEGI GARBIKETA batekin. Bi edertasun saio HORIEKIN gure azalak eduki ditzakeen zikinkeriak garbituko ditugu, azala berdinduz eta argitsu utziz. Ondorengo hilabeteetan gure azala brontzeatu nahi badugu, ezinbestekoa izango da aurreko pausoa ematea, kolore uniforme eta naturala lortzeko. Ohikoa da UVA izpien sesio batzuk hartzea SOLARUIMean. Baina ez baduzu nahi zure azala eguzki edo solarium bitartez brontzeatu, %100ean naturala den kolorea hartu dezakezu spray autobrontzeadroe baten bidez. Azken hori ezkontza bezperatan egingo genuke (bi egun lehenago, eta bezperan errepasoa). Horretarako bigarren exfoliazio bat egin beharko litzateke, brontzeatu artifizial hau ondo gelditzeko beharrezkoa bai-



ta azala ondo exfoliatu eta hidratatzea.

Ezkongai batek, bestalde, eskuak eta oinak zaindu behar ditu, ezkontza egunean zapatak eta eraztuna ondo gera dakizkion. Ezkontzarako hilabete falta denean MANIKURA eta PEDIKURA egingo ditugu. Horrela ezkontza bezperan oin eta eskuak prest edukiko ditugu, errepaso txiki batekin. Ezkontza bezperan azazkalak esmaltatuko genituzke. Manikura frantsesa egiten da gehienetan, eta esmalte normala edota iraupen luzekoa erabiltzen da normalean. Azken hori gomendatzen dugu, eztei bidaian esku zein oinak txukun izateko.

Bestalde ezkontzarako aste bat falta dela, AURPEGI TRATAMENDU bat egitea oso garrantzitsua da. Peeling-a eta C bita-

### Gizonezkoen ile-apaindegia

JOSE ANTONIO



Zerbitzu bakoitzean, toalla eta erabili eta botatzeko bizar-xafiak ere sartzen dira, higienezaren gaineko araudiak eskatzen duena beteaz.

Errosario kalea, 30 - Elgoibar  
Tel: 943 741 492

- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar txukunketak egiten ditugu
- Ilea zaintzeko KERASTASE eta L'OREAL tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako



[www.peluqueriajoseantonio.com](http://www.peluqueriajoseantonio.com)



mina zein azido hailuronikoa duten tratamenduak dira egokie-  
nak, azalari argitasuna eta tinkotasuna emateko eta zimurrak  
disimulatzeko.

Egun hori bera aurpegiko zein gorputzeko DEPILAZIOA egi-  
teko aprobetxatuko dugu; argizari bero zein epelaz, laser bi-  
dezko depilazioa egin ezean, noski.

MAKILLAJEA ere ezin dugu ahaztu: soinekoaren probak egi-  
tera joateko makillajea aukeratuta edukitzea da hoberena; ho-  
rrela ezkon eguneko look-a osorik ikusi ahal izango dugu, bai-  
ta orrazkera ere, noski. Beharrezkoak izanez gero, gehiago  
egin daitezke, baina normalean bi probarekin nahikoa izaten  
da behin behineko makillajea erabakitzeko.

Iritsi da ezkon bezpera; lehen aipatu bezala, esku (maniku-  
ra), oin (pedikura) zein azalean (aurpegi tratamenduak) azken  
ikutuak egingo ditugu.

ERLAXATZEKO TRATAMENDUAK ere oso ondo datozkio ez-  
kongaiari egun hauetan, lasai egoteko eta ondo deskantsatze-  
ko.

Ezkontza eguna da; flash anpoila eman eta makillajea  
prestatuko dugu. Orrazkera prest dagoela, jantzi eta egunaz  
disfrutatzea besterik ez da gelditzen. ZORIONAK.

NOA estetika

## Imprenta Arrillaga

Inprimaketa: Offset Digitalean	Eskeritz gordinak Harta ogarriak Gusta txartelak Kartak - etiketak e. a.	Fotokopiak Kaleetan Txartelak
-----------------------------------	--	-------------------------------------

**Trenbide Kalea, 13 - behea**  
**Tel.: 943 74 01 87**  
**e-posta: arrillagasi@euskalnet.net**

**ileapaindegia  
estetika**

**NOA**  
943 74 74 21  
Sar Gaxiola, 11/bis - ELGOIBAR

## TRATAMENDUAK

- ▣ Mesoterapia
- ▣ LPG
- ▣ Radiofrequentzia
- ▣ Presoterapia
- ▣ Aurpegirako tratamenduak
- ▣ Gorputz tratamenduak
- ▣ Solariuma

## AZALEA

*Edergintza*

*M<sup>a</sup> Carmen Bereziartua*

Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 740 310

### HIDRODEPURAZIOA

Organismoaren garbiketa naturala

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA  
 Depilazioa (laserra, elektriko eta argizariakoa) - Mikropigmentazioa

San Ignazio, 1 - ELGOIBAR

Tel.: 943 53 17 45

jasone@jasonesg.com

www.jasonesg.com

Sartu,  
aukeratu  
eta  
eraman itzazu!!

## ARAMBURU

BIZKIDENDA

San Frantzisko, 26  
Tel./fax: 943 742 535  
Elgoibar

# JOSE MARI AGIRRETXE 'PORROTX'

PAILAZOA

**“Egunerokoan euskara sentitu egin behar dugu, gozatu. Hori eginda, besteak batuko zaizkigu”**


‘Nola eragin haur eta nerabeek euskaraz egin dezaten’ izenburuko jardunaldietan parte hartuko du Jose Mari Agirretxe ‘Porrotxek’ gaur zortzi, IMHn. Elgoibarko Izarrak antolatu du jardunaldi hori, Udalaren babesarekin, eta ‘Euskal kulturatik bizipoza saretzera’ izenburuko saioan, Lasarte-Oriako esperientziaren berri emango du Porrotxek. [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)-ek streaming bidez emango du jardunaldi osoa. Elkarrizketa osoa: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)

‘Bizipoza’ aipatu duzu. Euskara sustatzea jarrera kontua ere badela diozu. Euskararen mundu honetan, irudipena daukat sarri gure saioak kezaka hasteko tentazioa izaten dugula, arrastaka gabiltzanaren sentazioa hedatzeak on egingo baligu moduan edo.

Baliteke, baina jarrerak beste bat izan behar du. Poza transmititu behar dugu, ilusioa.

**Zeure herriko esperientziaren berri ematera zatoz. Ze bidetatik egin du zuen herriko euskalgintzak egin duen aurrerabidea?**

Lasarte-Oria Berreuskaldundu Dezagun taldea sortu genuen orain 30 urte pasatxo euskararen inguruko kezka geneukan lagun batzuek. Oso aktibistak ginen garai hartan, baina poliki-poliki, ezberdintasun ideolo-



gikoak eta besteak utzi, eta euskaldun guztiok elkartzeko beharra ikusi genuen. Hala, Ttakun sortu genuen, euskarak batzen gintuenen proiektua. Eta lehenengo urtean, euskararen maratonia antolatu genuen. Garai hartan, beharra geneukan gure buruari frogatzeko gai girela 40 orduz, etenik gabe, euskaraz aritzeko. Plangintza bat egin eta milatik gora lasartear igo genituen oholtzara lehen aldi hartan. Orgasmo kolektiboa izan zen hura. ‘Bihartik aurrera Lasarte-Oria denok euskaraz’ oihu egin genuen bukaeran, baina iritsi zen biharamuna eta herriak jarraitzen zuen berdin eta euskaldunok oso zaila geneukan egunerokoan euskaraz egiteko. Horregatik ekin genion euskarazko esparruak sortzeari.

### **Eta gaur, eredugarri ere bada zuen jarduna.**

Joan dira urteak, baina, bai, nabarmen egin dugu aurrera. Orain, 150 bat lagun dauzkagu Mintzalagun egitasmoan; antzerki eta dantza garaikidearen eta euskal dantzen eskola ere sortu genuen, eta lau talde-rekin hasi baginen ere, gaur 60 bat talde gara astero antzerkia euskaraz egiteko batzen garenak. Batukada taldea ere badaukagu, Dinbidanba, eta bertso-eskola da egitasmo hauen artean zaharrenetarikoa. Xumela abesbatza ere sortu genuen duela zortzi bat urte, ondo pasatzeko, eta asteartero batzen gara ordubetez abesteko. Umetan abesbatzetatik botatakoak, lotsagatik dutxan kantatzera ere ausartzen ez direnak... daude taldean, eta ondo pasatzeko elkartzen gara, baina ikasten ere ari gara.

### **Kulturari jarri duzue indarra, eta bizipozerako salto hori ere kulturatik egitea proposatzen duzu. Zergatik?**

Bai, kulturako esparru guztietan sartu gara, eta sartu gara kulturari hori bizi dugulako, eta horrenbestez, hori delako gure esku daukaguna. Lan hori geure gain hartzera behartuta ere sentitu gara. Eskualdeko txurriak ginen gu, baina guk esaten dugu Gipuzkoako Sartaguda dela gure herria. Guk espazioa dugu hegan egiteko eta egiten dugun orok du saria. Azken hogeitaz urtean bikoiztu egin dugu euskararen erabilaren kopurua. %10etik %20ra egin dugu, eta batez ere, haur eta gazteen artean egin du gora kopuru horrek. Garbi dago euskaldunak garenok euskaraz aritu behar dugula edozein lekutara joanda ere, baina hori bakarka egitea oso nekeza da. Aldiz, herrian sare indartsu bat osatzen badugu, esparru ezberdinetakoa, errazago egingo dugu. Gaur, kultur erreferente indartsuena euskaraz egindakoa da Lasarte-Orian.

### **Oso bestelako errealitatea zen ia atzora arte Lasarte-Oriakoa. Zu zeu ere erdaldundu zinen garai batean, ezta?**

Bai. Nire aita errezildarra zen, eta Michelin enpresara etorri zen lanera. Gure aita Michelinen hasi zenean ez zen euskararik entzuten enpresan. Frantsesa euskara baino gehiago entzuten zen han, enpresa frantsiarra zelako. Hala, euskaldun asko eskola nazionaletan eskolatu gintuzten eta koadrila erdaldunak izan genituen, eta gainera, gureak bezalako guraso euskaldun askorentzat oso garrantzitsua izan zen euren seme-alabek gaztelera ikastea, eurentzako ezinbestekoa izan zelako, eta aldiz, euskarak ia ezertarako balio izan ez zelako. Nik neronek ere gaztelera munduan bizi izan nituen haurtzarora eta gaztarora, baina 16 bat urterekin, zer nintzen eta zer izan nahi nuen eta non bizi nintzen eta zein nuen neure herri hasi nintzaion neure buruari galdezka. Hala, euskaldun izan nahi nuela erabaki nuen, eta AEKn egin nituen bost urte euskara ikasten. Eta ikasitakoarekin, Magisteritza euskaraz egin nuen, eta hasi nintzen euskaraz eta euskaratik bizitzen, euskaraz amesten, herrigintzaz euskaraz gozatzen, eta jakina, gustura egiten nuen hori besteentzat ere nahi nuen. Gaur egun, euskara gozamena da niretzat. Euskara da dena, eta euskaratik hurbildu gara gu, pailazok, pisu handiko gai sozialetara –ekologia, familia mota ezberdinak, gaixotasunak...– eta horrek plus bat eman digu. Herrigintzan egindakoari gehitzen diozu Udaletik egiten ari diren lana eta ikastetxeetan eman den iraultza –1988an hasi ziren B ereduko lehenengo taldeak eta

gaur D eredia eskaintzen dute herriko bi ikastetxeek– eta horren emaitza da gaurko Lasarte-Oria.

### **Zalantzarik ez dago kulturgintza estrategikoa dela euskararen normalizaziorako. Uste duzu herrigintzatik sortutako taldeek eta administrazioek eskutik dihardutela?**

Guztiz estrategikoa da, baina gaur egun instituzioen aldetik bizi duguna ez da horrekin uztartzen. Ez dago plangintzarik, ez dakigu nora iritsi nahi dugun, ez dakigu zer bitarteko jarri... gaur dagoena dago, herrigintzak egiten duelako, beti egin duelako zorionez, baina administrazioak behar luke plan bat egin, herrigintza eta administrazioa plangintza baten bueltan batu direnean ikusi delako emaitza izugarri ona izan dela; askotan, herri bateko errealitatea iraultzerainokoa. Bertsolaritzari, antzerkigintzari, literaturari... esparru guzti horiei eman diezaiegun behar duten lekua, eman diezaiegun behar dituzten bitartekoak.

### **Eskolak iraultza ekarri duela diozu. Eta ekarri du, baina egia da garai batean, pentsatu genuela D ereduarekin eskolak euskaldunduko zituela haurrak eta gaur ikusten dugu emaitza ez dela guk nahi bestekoa izan. Behin edo behin, esan izan duzu ‘Bai euskarari’ eskolak barik ‘Euskaraz bizi’ eskolak behar ditugula.**

Esne hutsa, kafesnea, ebakia eta kafe hutsa dauzkagu bizitzan, eta euskarari dagokionez ere, hori ikusten dut ikastetxetan, ez baita berdina euskararen alde egotea edo euskaraz bizitzea. Gai konplikatu da, baina behar ditugu bi eredu sortu. Daukagun errealitatearekin –perfila, euskararen ezagutza, gurasoen izaerazaila dago ikastetxe guztietan euskaraz bizitzea, eta hezkuntza mundutik kanpora ere gertatzen zaigu kultur talde askotan. Baina ikusi badugu kultur munduan ezinbestekoa zaigula euskararen esparruak

sortzea, euskara bizi eta euskaraz gozatze esparruak sortzea, zergatik ikusten dugu hain aldrebesa hori hezkuntza mundura eramatea? Ez dute eskola guztiek zertan berdinak izan; ez daukagu denetan kafesnea eskaini beharrik. Gai polemikoa da hau, baina euskarak behar ditu bere arnaguneak, eta ez bakarrik kantatzeko eta dantza egiteko.

### **Eremu soziolinguistikoaz gain, ikastetxearen aldagaiek ere eragiten dute, beraz. Konforme, baina bistan da eskola eta eremu soziolinguistikoak edozein direla ere, emaitza hobekak lortzen ditugula beti ume txikiakin. Nola eragin genezake zaharagoengan?**

Euskalduntzeak ezin du soilik eskolaren betebeharra izan. Hiruki bat daukagu horretarako: familia, eskola eta herria, eta horren barruan administrazioa ere bai, jakina. Begira, kontu bat, herriari dagokionean. Joan den urtean Hik Hasi aldizkariak *Haurren Hiria* izeneko bilkura antolatu zuen, eta lau elkarte batu ginen han, Francesco Tonucci pedagogoa italiarrarekin batera: Arrasateko Txatxilipurdi aisialdi elkarteak, Irrien Lagunak, HUHEZiko Sorguneak ikerketa taldea eta Hik Hasi. *Eskola herritarra, herri hezitzailea* izena jarri zien jardunaldi haiei Hik Hasik, eta haurrentzako egokiak diren herriak edo hiriak pentsatzeko eta hainbat urrats emateko batu ginen han. Azkeneko urte hauetan, hirigintza arazoak direla-eta, eta gizarteak eman duen aldaketarekin, eskola asko lau pareta artean sortu dira, eta guk eskola herrikortu nahi dugu eta herria bera bihurtu hezitzaile. Lehen, kalea eta herria herriarrenak ziren,

“Gaur, kultur erreferente indartsuena euskaraz eginikoa da Lasarte-Orian”

eta gaur, kotxeenak dira; gizon langile kotxedunen ikuspuntutik sortu da hiri-eredu hori, eta eskema horretatik kanpo dauden kolektiboak — haurrei, besteak beste— oztupo ugari ezartzen dizkie. Hiri-eredu horrek haurren heziketan —sozializazioan, autonomian eta ongizatean— zer-nolako eragina duen hausnartzen aritu ginen, eta haurrak kalean jolastu, bizi eta hezi ahal izango duen bestelako herri-eredu baten aldeko urratsak nola eman litezkeen pentsatzen. Umeek ere badutelako zeresana eta denon artean landu behar ditugulako ereduak. Hortik etorriko da salto estrategikoa.

### **Euskararentzat ere bai? Nola?**

Herri hezitzailea eta eskola herritarra sortzeko denon parte-hartzea sustatu behar dugu, eta lanketa horretarako jolasa izango dugu ardatz. Zerbitzuak sortzen eta eskaintzen eman ditugu azken urteak, eta hori ekarpen ezinbestekoa izan da, jakina, baina hori estrategia aldaketa dator. Zerbitzuak eskaintzetik parte-hartzea bultzatzera egin behar dugu, familientzat gauzak antolatuzetik familiekin gauzak egitera pasatu behar dugu. Eta haurrei hitza eman behar diegu. Haurren hiri horretan, hizkuntza —euskara— da guretzat oinarria. Euskara komunikatzeko tresna baino gehiago delako. Euskarak badauka plus bat, sortzen baitu bizi-poza, eta hori modu kolektiboan landu behar dugu. Egitura politiko, juridiko eta abar egokiek lagunduko lukete emaitza hobek sortzen, baina gure esku dagoeneko baditugu bitartekoak eta horiek aktibatuz behar ditugu, eta hori herri-gintzatik egin behar dugu, elkarrekin.

Lasarte-Orian, adibidez, 70 kultura eta herri ezberdinetatik etorritako jendea bizi gara, eta horri heldu behar diogu, baina baita pertsonen-aniztasunari ere, pertsona bakoitza bat delako, bere emozio, gaitasun eta gabeziekin. Gertatzen dena da oso uniformizatuta dugula hezkuntza sistema oro har. Haur txikiekin errazagoa da lan egitea, haurrari begira aritzeko aukera handiagoa daukagulako, baina gero, goragokoengana goazenean, zailtasun handiagoak daukagu lanerako, sistemak harapatuta gaituelako. Araututa daude neurgailuak, eta horiek pertsona, emozioak eta baloreak bazterrean uzten dituzte.

### **Lasarte-Orian 70 herritatik etorritako lagunak bizi zarete. Nola egin duzue haien euskarara ekartzeko?**

Une honetan abesti bat sortzen eta bideoklip bat egiten dihardugu sahararekin, errumaniarekin, andaluziarekin eta bertan bizi garen beste hainbatekin [Herrigintza eta Udala elkarrekin ari dira]. Euskara oinarri hartuta, elkarlana bideratzen ari gara. Senblante Andaluzekin batera antolatu genuen bertso-saioa bada adibide bat. Xabi Payak zuzenean itzuli zituen Jon Maiaren bertsoak jende erdaldunarentzat. Bestearekiko errespetuz gauza politikak egin daitezke, geuretik.

### **Nagusitasunetik, baina nagusikeriarik gabe beraz. Hala ere, euskaldunoi sarri gertatzen zaigu besteari errespetua faltako diogulakoan geurea bazter utzi eta harenera makurtzea, oharkabean askotan. Nola egin gaitzen ez irteko?**

Garbi dago halakoetan hasteko, indartsu egon behar duela batek. Ahul zaudela ezin zaitezke halakoetan hasi, bizirautea bera dagoelako jokotan, baina euskal kultura indartzen doan neurrian, hasten da bat zabalitzen eta hegemonia horretatik hasten da besteak ezagutzen eta bes-

tengana gerturatzen, eta modu natural batean, ilusioa sortuz, lortzen du erakargarri izatea haientzat. Guk, pailazook, *abuela Maria Luisa* abestia sortu genuen duela urte batzuk eta egin genuen *sevillana* bat, baina euskaraz. Horretarako, Semblante Andaluz elkartera hurbildu ginen eta elkarte hartako txikienek, Los Duendecillos del Alba taldekoek, gurekin batera dantza egin zuten eta euren talde rocieroak kantatu zuten gure abestia. Egin genuen *sevillana* hari esker lortu genuen haiengana hurbiltzea, eta gerturatze hori euskaratik egin genuen. Nik beti esaten dut zirkuluak daudela gizartean, eta horietako batean gaudela gu, egunerokotasunean euskaraz bizi garenak, eta beste zirkulo batean, guregandik oso gertu, euskararen alde daudenak daudela, tarteka egiten dutenak nahiz sekula egiten ez dutenak, eta horiekin beste kolaborazio bide bat landu behar dugula: hurbildu behar gara haiengana, ikasi behar dugu haiengandik ere, eta hori egin behar dugu, jakina, euskaratik. Bi zirkulo aipatu ditugu, baina badago beste bat ere, urrutixeago. Hor daude, esaterako, etorri berriak edo guregandik oso urruti daudenak, eta haiengana gerturatzeke, geu egon behar gara indartsu, ahul bagaude galtzeko guztiak dauzkagulako. Eta hori dena egin behar dugu mimo pixkatekin. Esan behar diegu euskarak gauza asko emango dizkiela, euskara gozagarri izango zaiela, eta horretarako zubiak eskaini behar dizkiegu uneroro.

### **Lehenengo hitza beti euskaraz. Gure bazkide batek dio elkarrizketa elebidunen alde egin beharko genukeela. Gustatzen zaizu?**

Bai. Zenbat jende euskaltzale ikusten dugun erdaraz egiten euskaraz ulertzen duen tabernariarekin, adibidez. Tabernariak euskaraz hitz egiten ez dakielako edo euskaraz oraindik kostata egiten duelako aldatzen dugu guk erdarara, baina ez gara konturatzen tabernari horrek eskertzen digula euskaraz egiten badiogu. Euskaraz egingo bagenu halakoetan, sorpresa polit ugari hartuko genituzke, askotan jarrera positiboa duelako aurrean dugun horrek. Barne-indar hori landu behar dugu eta kontzientzia hartu egunerokotasunean euskaraz bizitzeko.

**Zeuk ere esan duzu zerbitzuak eskaintzen pasa ditugula urte asko, beharbada begi bat elkartean jarri gabe gure kasuan. Bazkide talde batekin gogoeta prozesua hasi dugu. Nondik abia gaitzeko?**

Nik esango nizuke baikorrak izan behar duzuela. Egindakoarekin pozik egon behar dugu, eta zer esanik ez herrigintzan ari garenek. Zerbitzuak sortu ditugu, eta eskerrak hori egin dugun!. Utzi diezaiozun gure burua egurtzeari eta jarri gaitezen aurrera begira, jarri gaitezen parte-hartzea sustatzera, jarri gaitezen ilusioa sortzera, eta egin dezagun hori herrigintzan diharduten gainerakoekin eta administrazioarekin elkarlanean. Jauzi egin dezagun haurrentzat egitetik haurrekin egitera. Bizipoza izan behar dugu eta irribarrean ahoan dugula lan egin, geuk sinisten badugu horretan lortuko dugulako beste batzuk ere sinistea, ilusioa kutsatu egiten baita.

“Euskara gozagarri dela esan behar dugu eta zubiak eskaini gerturatzeke”

## Iñigo Larizek eta Nahia Quincocesek errekorrak ondu dituzte Karakateko igoeran

123 lagunek hartu dute parte aurtengo edizioan

**E**rrekorren edizioa izan da 21. Karakateko igoera. Iñigo Larizek bi segundoan ondu zuen iaz ezarritako errekorra, eta 27:37ko denboran laga du marka berria. Emakumezkoetan ere Maite Maiorak ezarritako errekorra ondu zuen Nahia Quincoces lekeitirrak 34:21 denborarekin. Parte hartzaile kopuruari dagokionez ere, sekula baino antxixikari gehiago izan dira aurtan, 123 lagun guztira. Era berean, asko izan ziren korrikalariak animatzera igo zirenak. Argazki guztiak eta bideoa [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) webgunean.



## Mintxeta atletismo taldekoek Irungo Krosean hartu dute parte

Aurreko astean Martin Hernandezek irabazi zuen Zarautzen

**M**intxeta atletismo taldeko korrikalariak Irungo krosean hartu zuten parte joan zen asteburuan. Mustafa El Hachmik hirugarren egin zuen jubenetan; infantiletan, Nerea Sasiainek laugarren egin zuen, eta Garazi Inesek, zortzigarren, alebinetan.

### Zarauzko krosa

Joan zen astean Martin Hernandezek irabazi zuen infantiletan Zarautzen, eta aste honetan, bederatzigarren egin du Atapuerkako Nazioarteko krosean.



## Ikastolako eta Herri Eskolako umeak Urbian izan dira, Morkaikorekin



Ikasleekin egiteko mendi irteerak antolatu dituzte Morkaiko mendizale elkarteak eta ikastetxeek elkarlanean, eta joan zen domekan Urbian izan ziren. 50 bat ikasle batu ziren guztra. Hotz egin zuen, baina euririk ez, eta antolatzaileek esan dute oso ondo pasatu zutela domeka goiza.

## ‘Pioletak dantzan’ hitzaldia, eguenean, musika eskolan

Aste honetan hasi dira Morkaikoren mendi emanaldiak, eta datorren astean izango da bigarren saioa. Iñigo Andola eskalatzaileak Piriniotara egindako irteeren berri emango du. 40 bat minutuko ikus-entzunezko batean jaso ditu Piriniotan jasotako irudiak, eta horren berri emango du. Musika eskolako auditorioan izango da emanaldia, 21:00etatik aurrera.



# Bihar jokatuko dute Alkortako Igoera, Mendaron

10:30ean hasiko da proba, Herriko Enparantzan

**M**endaroko ezker abertzaleak Alkortarako igoera antolatu du biharko, euskal preso politikoen eskubideak aldarrikatzeko. 10:30ean hasiko da lasterketa, Herriko Enparantzan, eta izenematea ordu erdi aurretik egin beharko da, plazan bertan. Udaletxe aurrean hasiko da proba eta Alkorta base-riko atarian amaituko da. 4,7 kilometro izango dira, aldapan gora. Lehenengo neskak eta mutilak txapela eta garaikurra eskuratuko ditu; bigarren eta hirugarren sailkatuek, berriz, garaikurra. Alkortara igoko diren guztientzako hamaiketako prestatuko dute antolatzaileek.

luz 25 lagunek hartu zuten parte, eta Iban Murua elgoibartarrak irabazi zuen proba, 21:47 denborarekin. Hala ere, ez zuen Iñigo Lazkano mendaroarrak ezarritako errekorra hobetu. Gizonezkoetan Iñigo Lazkano mendaroarrak dauka erre-



korra 20:24 denborarekin, eta emakumezkoetan, berriz, Nerea Amilibia aiarrak, 25:49 denborarekin.

## Abenduaren 22an banatuko dituzte kirol federatuaren urteko sariak



2014. urtean nabarmendu diren kirolari, entrenatzaile, jokalarri ohi, laguntzaile, zuzendaritzako kide edo babesleei errekonozimendua erakusteko baliatzen ditu Udal Kirol Patronatuak kirol federatuaren sariak. Aurten, abenduaren 22an egingo dute sari banaketa ekitaldia, 19:30ean, musika eskolako auditorioan. Herriko 19 kirol klubek parte hartuko dute ekitaldian, eta euren dagokien urteko sariak aukeratzeko. Abenduaren 5era arteko epea dute klubek aukeratuaren izena Kirol Patronatuko arduraduneri jakinarazteko. Udal Kirol Patronatuak berak ere banatuko du beste sari bat, beraz, hogeita sari banatuko dituzte aurten.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Beti Gazte 2 – Haundi 1 (Pref.)  
Elgoibar 2 – Zarautz 0 (Erreg.)  
Urola 2 – Elgoibar 3 (Jub.)  
Elgoibar 1 – Arrasate 2 (Kad. A)  
Elgoibar 16 – Antzuola 0 (Inf.)  
Elgoibar 2 – Arrasate 3 (Inf. Txiki)  
Bergara 6 – Elgoibar 2 (Aleb.)

### ESKU PILOTA

#### Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak 25 – Batzokiko 5 (2. mailako nag.)  
Atxurbide 25 – Lagunak 24 (2. mailako nag.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 4 – Ebrosala 4 (2B)

### ESKUBALOA

Pulpo 20 – Murgil Elg. 20 (Inf. mut.)  
San Roke Elg. 16 – Ikus Elg. 28 (Inf. nesk.)  
Cometel Elg. 22 – Pulpo 13 (Inf. nesk.)  
Bera Bera 17 – Tecnifuelle Elg. 23 (Kad. nesk.)  
Bankoa Elg. 29 – Urrietako 18 (Kad. mut.)  
Urola 22 – Pneumax Elg. 27 (Kad. nesk.)  
Sporting LR 33 – Lauko Elg. 19 (Sen. nesk.)  
Bera Bera 22 – Astigarraga Elg. 21 (Jub. nesk.)  
Usurbil 26 – Alkorta Elg. 38 (Sen. mut.)  
Beristain Elg. 24 – Egibide 13 (Jub. mut.)  
Deca Elg. 18 – Hondarribi 26 (Kad. mut.)  
Txariduna Elg. 40 – Egia 6 (Inf. mut.)  
Aloña Mendi 23 – Gabaz Elg. 24 (Sen. mut.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 22

16:30 Elgoibar – Burumendi (Ohorezko jub.)

#### Domeka, 23

11:30 Elgoibar – Eibartarrak (Aleb.)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 22

9:45 Ikus Elg. – Aiala B (Inf. nesk.)

11:00 Murgil Elg. – Amenabar (Inf. mut.)

12:30 Bankoa Elg. – Saieko (Kad. mut.)

17:45 Lauko Elg. – Kukullaga (Sen. nesk.)

19:30 Alkorta Elg. – Santoña (Sen. mut.)

#### Domeka, 23

10:00 Tecnifuelle Elg. – Zuazo (Kad. nesk.)

11:30 Astigarraga Elg. – Zuazo (Jub. nesk.)

13:00 Gabaz Elg. – Egia (Sen. mut.)

# Bihar Santa Zezilia eguna dela-eta, hainbat musika ekitaldi antolatu dituzte egunotarako Elgoibarren eta Mendaron

Domekara bitartean izango dira musika ekintzak

**A**zaroaren 22an da Santa Zezilia eguna, eta horren harira hainbat ekintza antolatu dituzte egunotan Elgoibarren eta Mendaron.

Euskal Herriko musika eskola ia guztiek egingo duten moduan, Elgoibarko Inazio Bereziartua eta Mendaroko Ameikutz musika eskolek ere, *Musikalean* izeneko ekimenarekin bat egin dute, eta eskolatik kalera atera dute musika. Eguaztean Elgoibarko musika eskolako txaranga irten zen kalera, eta, atzo kontzertua eskaini zuten ikasleek, eskolako auditorioan. Kontzertuaren ostean, ikasturteko diplomak banatu zituzten. Era berean, Mendaroko Ameikutz musika eskolakoak ere atzo irten ziren kalera. Musika eskolako koral taldeak eta trikitilariak, Herriko Enparantzan eskaini zuten saioa.

Gaur goizean, bestalde, Ikastolako umeak kalejira joan dira eskolara. Kalegoen plazatik Ikastolara arteko bidea instrumentuak joz eta abestuz egin dute. Gaur arratsaldean, berriz, musika eskola-



ko trikitilarien taldeak alaituko ditu Elgoibarko kaleak, 18:30etik aurrera.

## Musika Banda, domekan

Elgoibarko Udal Musika Bandak Santa Zeziliako kalejira eta kontzertua eskainiko ditu Santa Zezilia biharamunean, domekan. Kalejira 9:45ean hasiko da eta 12:30ean izango da kontzertua, Herriko Antzokian. Kontzertu horretan hil ondoren-

go omenaldia eskainiko diote hil berri den Julian Iriondori, bandako zuzendaria izan baitzen hainbat urtean. Era berean, hil diren bandako kideen (Bittor Alberdi, Juan Cordero eta Julian Iriondo) omenezko meza ospatuko dute bihar, Santa Zezilia egunean, San Bartolome parrokian (19:00). Meza horretan Parrokiako Abesbatzak hartuko du parte, eta meza ostean hainbat kanta ezagun abestuko dituzte.

## Katamaloren CDak salduko ditu BARRENEK, Durangoko Kafe Antzokiari laguntzeko



Egungo egoera ekonomikoak bultzatuta, Plateruena Durangoko Kafe Antzokiak diru-bilketa eta borondatezko lanaren inguruko kanpaina jarri du

martxan. Ildo horretatik, kulturgintzako hainbat taldek, antzokiari babesa agertu nahi izan diote, eta horien artean Katamalo taldeak, esate baterako, antzokian eman zuen azken kontzertuaren zuzeneko grabaketa Plateruena esku utzi du. Durangoko Azokan salduko dute CDa, baina horren aurretik, CD hori Tokikomeko hedabideetan jarri dute salgai, tartean BARREN astekarian. Aste honetan bertan jaso ditugu CDak, eta nahi duenak BARREN astekariaren bulegoan edo Elgoibarko Izarraren egoitzan erosi dezake CDa, 8 euroan.

## 'Euskaraz bizi nahi dut' flash mob-erako entsegu orokorra hilaren 29an


Elgoibarko hainbat eragilek elkarlanean ospatuko dute aurten ere abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Eguna, eta horretarako, *Euskaraz bizi nahi dut* flash mob-a antolatu dute, besteak beste. Atzo izan zen lehenengo entsegua, eta datorren astean beste bi entsegu egingo dituzte: martitzen eta eguenean izango dira, 18:30ean, Olaizaga kiroldegian. Horrez gain, entsegu bateratua egingo dute azaroaren 29an, Ikastolako frontoian, 12:00etatik aurrera. Abenduaren 3an, 19:00etan, izango da ekimen nagusia, Kalegoen Plazan.

# Emakumeenganako indarkeria salatzeko ekintzak antolatu dituzte

Martxa morea izango da aurtengo berrikuntza

**A**zaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko eguna dela eta, emakumeenganako indarkeria salatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte, Elgoibarren eta Mendaron. Ekintza gehienak martitzenean bertan egingo dituzten arren, asteburuan pankarta erraldoi bat ere egingo dute Mendaroko Gaztelekuan, Beldur Barik lelopean.

Martitzenerako, bestalde, hainbat ekintza antolatu ditu Elgoibarko Emakumeen Asanbladak. 19:00etan kontzentrazioa egingo dute Kalegoen plazan, eta gero, Martxa Morea egingo dute. 1,7 kilometroko ibilbidea izango da: Kalegoen plaza - Errosario - San Frantzisko - Maala - Bernardo Ezenarro - San Bartolome - Santa Ana - Ubitarte plaza - San Ignazio - Kalegoen plaza. Ibilbidea korrika, oinez, bizikletan, patinetean edo bakoitzak nahi duen moduan egin dezake. Antolatzaileek arropa morea eramateko eskatu dute. Martxaren ostean, azaroaren 25eko komunikatua irakurriko dute.




**EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIARI EZ**

Mendaron, bestalde, umeentzako tailerrak egingo dituzte, 17:00etatik aurrera. Ludotekako begiraleen laguntzaz, iman tailerra egingo dute, eta oin markak margotuko dituzte, indarkeriaren kontrako pausoak emanez. 18:30ean, bestalde, pankarta egingo dute Beldur Barik lelopean, eta txapa moreak banatuko dituzte.

## Last fair deal taldearen kontzertua antolatu du Sinuosek gaur gauerako

Sinuose kultur taldeak antolatuta, Last fair deal musika taldeak kontzertua eskainiko du gaur gauean, Kultur Etxeko sotoan. Energiak beteriko blues & rock eta southern rock-a zuzenean grabatu dute euren lan berrian, taula gainean eskaintzen duten indarra islatuz, eta 60ko hamarkada amaierako eta 70eko hasierako soinuak gogora ekarriz. 23:00etan hasiko da kontzertua, eta sarrerak 3 euro balio ditu.



## Musika eta makina hotsak uztartuko ditu Kataia ikuskizunak gaur zortzi



Makina-erremintaren mendeurrenako ospakizunen barruan, Kataiak izeneko ikuskizuna izango da datorren bari-xakuan, IMHko museoan. Aitor Nova musikari elgoibartarraren proiektu honek musika, museoko makinaren hotsak eta enpresetan grabatutako irudi zein soinuak uztartuko ditu, makina-erremintaren iragana, oraina eta etorkizuna irudikatuz. Kataiak 30 minutuko ikuskizun interaktiboa izango dela aurreratu du Aitor Novak. "Ikusleek estimulu asko jasoko dituzte. Izan ere, ikuskizunaren lehen zatian, publikoa museoko bisitari bihurtuko da, eta musikariek bertako makinak bailiran jokatuko dute. Hala instrumentuen soinua makinaren hotsekin eta bisitarien pausoekin uztartuko da". Ikuskizunaren bigarren zatia museo-ko nabe zentralera mugatuko da. Han, zuzeneko musika, elektronika eta irudien bidez, ikus-entzunezko berri bat sortuko dute. Aitor Nova berak ere parte hartuko du zuzeneko musika jartzen. Hiru saio eskainiko dituzte: 19:30ean, 20:30ean eta 21:30ean, eta sarrera doan izango da.

**ETXEBIZITZAK**

- Apartamentu dotorea alokagai, Mendaron, frontoi alboan. Logela bat, egongela, sukalde eta komuna. Altzariek. ☎ **652 718 426 (15:00etatik aurrera)**
- 7 urteko etxebizitza eta bat eginik dauden bi garaje (43m<sup>2</sup>) salgai, Mendaron. Oso egoera onean. 118m<sup>2</sup>. (3. solairua). Hall-a, 3 logela, sukaldeta, 2 komun, egongela eta 20m<sup>2</sup>-ko terraza. Komunitateko lorategia eta haurrentzako jolas-gunea. Bista ezinhobeak. 27m<sup>2</sup>-ko trastelekua aukeran. ☎ **616 668 742**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Bi edo hiru logelakoa. ☎ **631 098 995**

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka. ☎ **628 014 327**
- Emakumea lan bila: Esperientzia handia tabernetan lanean eta adinekoak zaintzen. ☎ **632 598 619**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. Esperientzia daukat. ☎ **686 859 448**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, orduka. Esperientzia daukat. Dendetan ere lan egiteko prest. Jendaurrean lan egiteko doaiak ditut. ☎ **622 501 834**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Interna ere bai. ☎ **688 682 398**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Asteburuetan, orduka edo interna, gauez... Ordutegi malgutasun handia. Esperientzia daukat. ☎ **626 914 904**
- 30 urteko emakumea lan bila. Zerbitzari lanetan, umeak zaintzen, etxeko lanak egiten edo beste edozertan jarduteko prest. ☎ **651 544 858**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ **603 743 240**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ **689 003 537**
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia garbiketa lanetan eta adinekoak zaintzen. ☎ **631 498 697**

**LOKALAK ETA GARAJEAK**

- Aukera paregabea! Garajea salgai Urazandin, Kalamua kalean. 24m<sup>2</sup>, eta bost metroko altuera. Irekia da, baina itxeko aukera dauka. ☎ **607 349 070**

**IBILGAILUAK**

- Seat Leon autoa salgai. Sport, TDI, 1.9, 110cv. 2005. urtekoa. Urdina. 5.000 euro. Prezioa negoziatzeko prest. ☎ **688 697 514**

**PARTIKULARRAK**

- Batxilergoa: Bigarren mailarako klase partikularrak hartuko genituzke, bereziki, ingelesa eta gaztelania. ☎ **628 413 290**

**BESTELAKOAK**

- Norbaitek soberan baldin badauka, gustura hartuko nuke telebista bat. ☎ **603 221 309**

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **22€** (salmenta). Autoak saltzea: **18€** - Bestelakoak: **10€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€** - Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**Komunitate bateko presidentea naiz eta jakin nahiko nuke nora joan behar dudatan Etxalde-  
en Administrazioan diharduen profesional bat kontratatzeko.**

Finken Administrazioailean Lurralde Elkargora jo behar duzu, eta han esango dizute bertan kolegiatuta-  
ko profesionalik baden zure herrian edo eraikina edo etxe hori duzun inguruan. Etxalde-  
en Administrazioa gero eta formakuntza eta profesionaltasun handiagoa eskatzen duen lanbidea da, eta horregatik oso ga-  
rantzitsua da gestio hori egin behar dutenek titulazio egokia izatea eta kolegiatuta egotea.

Kolegiatuta egotea berme bat da profesional hori kontratatzerako doanarentzat. Izan ere, profesional horrek lan hori egi-  
teko behar duen ezagutza, esperientzia eta formazio profesionala duenaren bermea da kolegiatu-txartela. Eta ez hori ba-  
karririk. Egoera arautuan lan egiteko baldintzak eta horretarako derrigorrezko duen aseguruua baduela ziurtatzen du kole-  
giatu txartelak. Gainera, profesional horrek irregulartasun bat egingo balu, Finken Administrazioailean Lurralde Elkargoak  
erantzungo luke bere lekuan, kontratatu duenaren eskubide eta interesak babestea dagokiolako.

**AHOLKUA: Etxalde-  
en Administrazioaileak zorpetze arazoak zainduko ditu, prozesu judizialak azkartuz, eta egu-  
neroko elkarbizitzan sortzen diren egoera zailetan bitartekari lanak egingo ditu, modu objektibo eta inpartzia-  
lean jokatzu beti.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxalde-  
en Administrazioaileko-Gradu ikasketen arduraduna  
Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako  
eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






• Zorionak, **Danel**, bihar 4 urte egingo dituzulako. Muxu potolo bat etxekoan, eta bereziki, lehengusina Ne-rearen partez.



• Zorionak, **Elene**, igandean 4 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat Jakes, Markel eta Jonen partez.



• Zorionak, **printzesa**, zure 3. urtebetetzear. Muxu bat etxekoan, eta bereziki, Nuria, Duna eta Manexen partez.



• Zorionak gure etxeko **printzesa poxpoliñari!** Dagoeneko 6 urte! Muxu pila, familiakoan partez.



• Zorionak, **printzesa**, zure 3. urtebetetzear. Aita, ama eta Nuriaren partez.



• Zorionak, **Jare sorgintxo**, asteazkenean 3 urte egingo dituzulako. Familiakoan partez.



• Bat, bi, hiru... Bederatzi! Magia! Zorionak, **Nahia**, etxekoan partez. Askok maite zaitugu.



• Zorionak, **Sarai eta aitaita**, azaroan zuen urtebetetzearak direlako. Familiakoan partez.



• Zorionak, **Nuria eta Leire**, hilaren 7an eta 24an zuen egunak direlako! Muxu handi bana, familiakoan partez.



• Zorionak, **June**, ostegunean 8 urte bete zenuelako. Egund berezi horretan ondo pasa dezazula opa dizugu. Muxu potolo bat familiakoan eta bereziki, Markelen partez.

## OSPAKIZUNAK URTEBETETZEA



“Azaroaren 16an tia Itziarrek 90 urte bete zituen, eta lau belaunaldi elkartu ginen ospakizun bazkarian. 65 kondetar! Bazkari, kantu eta kontu ugariaren bueltan batu ginen, berekin bere urtebetetzea ospatzeko. Zorionak!”

## Zoriondu ezazu **BARREN**en!

### PREZIOAK

Erretratu bakarrekog agurra:

**4'50€**

Argazki bikoitza:

**7€**

Hirukoitza:

**9€**

Hiru lagunetik gorako taldeak:

**15€**

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekog agurra:

**3'50€**

Argazki bikoitza:

**6€**

Hirukoitza:

**8€**

Hiru lagunetik gorako taldeak:

**12€**

Argazkiak **eguztzen eguerdia (12:00etarako)**

baino lehen ekarri behar dira

BARRENEKO bulegora,

edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

e-postara bidali.

Azaroaren 22an, larunbata, irteera egingo dugu Zarautzera.



Abenduaren 13an familia irteera Olentzeroren etxera. Izena emateko epea astelehen honetan, azaroaren 24an, irekiko da, arratsaldeko 15:30ean Ludotekan.

## 21 barixakua

### Musika

**23:00 Last Fair Deal**  
Sinuosek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera, 3 euro.

## 22 zapatua

### Kirola

**10:30 Alkortara igoera**  
Herriko enparantzatik abiatuko dira korrikalariak.

### Santa Zexilia

**19:00 Parrokiako abesbatza**  
19:00etako mezan hartuko du parte, eta ondoren hainbat abesti kantatuko dituzte.

### Sare Eguna

**Bazkal aurretik Herri kirolak**  
Herriko enparantzan.

**14:30 Bazkaria**

Frontoian.

**Ondoren, kafe tertulia**

**18:30 Kalejira, Motxaila Band taldearekin**

**23:00 Kontzertuak**

Gaztetxean. Very Txarrak, Pa&Go eta DJ Pius.

## 23 domeka

### Santa Zexilia

**9:45 Musika Bandaren kalejira**

**12:30 Kontzertua**

Herriko Antzokian.

Egitaraua:

1. *Campo de rosas* (Miguel G. Bastida).

2. *Pacific dreams* (Jacob de Haan).

3. *Hooray for Hollywood* (Whiting Iwai).

4. *Tom Sawyer suite* (F. Cesarini).

5. *Malagueña* (E. Lekuona).

## 24 astelehena

### Tailerra

**17:00 Arte tailerra**

Zientzia eta razionalismoa landuko dituzte, Carmen Agirrerekin. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 25 martitzena

### Ipuin kontalaria

**17:00 Oihulari Clown**

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunaren inguruan. Udal Liburutegian.

### Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako eguna

**19:00 Elkarretaratzea**

Kalegoen plazan. Puntu moreduen dortsalak banatuko dituzte.

**19:15 Martxa morea**

Kalegoen plazan hasita, 1,7 kilometroko ibilbidea.

**19:45 Adierazpena**

Kalegoen plazan irakurriko dute.

### Beldur Barik

**17:00 Haurrentzat tailerrak**

Ludotekako hezitzaileek lagunduta, indarkeriaren aurkako pausoak emango dituzte, Mendaroko frontoian.

**18:30 Pankarta erraldoia**

*Beldur Barik* lelopean pankarta erraldoia egingo dute, Mendaroko frontoian. Ume zein helduek hartu dezakete parte.

## 27 eguna

### Erakusketa

**16:30 Jostailuen erakusketa**

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kultur Etxeko erakusketa gelan, hilaren 29ra arte.

### Mendi emanaldia

**21:00 'Pioletak dantzan'**

Morkaikok antolatuta, Iñigo Andola Larrañagak eskainiko du hitzaldia, musika eskolako auditorioan.

### BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
21 Etxeberria 22 Fernandez Goizez: Etxeberria 23 Fernandez 24 Yudego 25 Zabaleta 26 Barrenetxea 27 Ibañez 28 Garitaonandia	Astelehenetik igandera  Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

## ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

«Un viaje de diez metros»

22, zapatua: 19:00 / 22:15

23, domeka: 19:00

24, astelehena: 21:30

«Lifi, una gallina

tocada del ala»

23, domeka: 16:30



II. URTEURRENA

## PAKO ARRIZABALAGA URBIETA

2013ko azaroaren 24an hil zen, 83 urte zituela.

*“Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan”*

Familiakoak



I. URTEURRENA

## ISABEL RUIZ GOMEZ

2013ko azaroaren 20an hil zen, 95 urte zituela.

*“Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan”*

Familiakoak



I. URTEURRENA

## TERESA OTAMENDI ZUBIMENDI

2013ko azaroaren 19an hil zen, 87 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, azaroak 23, eguerdiko 12:00etan Mendaroko Azpilgoetako elizan.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

## MANUELA AZPEITIA EGAÑA

2013ko azaroaren 24an hil zen, 84 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, astelehenean, azaroak 24, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

## VALENTIN CHURRUGA ARRIZABALAGA

2013ko azaroaren 26an hil zen, 71 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, eguenean, azaroak 27, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

## LUIS FERNANDO AYESTA RUBIO

2013ko azaroaren 17an hil zen, 56 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroak 22, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





MONUMENTU ARTISTIKOA



# LASA JATETXEA



**250 LAGUNENDAKO  
JANGELA**



El Diario Vascoko  
"Más gastronomía"  
Sarjaren irabazlea  
2009an,  
BANKETEETAKO  
GIPUZKOAKO  
JATETXE  
ONENA moduan.



Ozaeta Jauregia -BERGARA-  
Tel. 943 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29  
[www.restaurantelasa.es](http://www.restaurantelasa.es)



ERA GUZTIETAKO  
BANKETEAk OSPATZEKO  
toki bikaina